

RUGBY ERREA

Materiala: Baloiak (neurri eta forma desberdinekoak) eta petoak.

Bi talde osatuko dira leku txiki eta mugatu batean. Talde bat erasoan arituko da, baloiarekin, eta bestea ihesean.

Hona arautegia:

- ☉ Baloia duen jokalaria ezin da ibili; baina, geldi egote horretan, saski-baloian egiten den modura pibota dezake baloia utzi barik.
- ☉ Baloiarekin baina baloia bota gabe, beste taldeko jokalariren bat ukitu behar du. Ukitzen dituen jokalaria joko esparrutik kanporatuta geratuko dira.
- ☉ Baloia bere taldeko jokalaria bati pasa diezaioke, hark bere ondoan dagoen kontrako taldeko norbait ukitu dezan.
- ☉ Kontrako taldekoek ezin diote baloia kendu, ez eskuetatik, ez airean.
- ☉ Baloia jausten bada, beste taldearentzat izango da eta kanporaturik zeuden guztiak barrura sartuko dira.
- ☉ Esparruaren murratik kanpo zapaltzen duena kanpora joango da.
- ☉ Helburua beste taldeko guztiak kaleratzea da. Hori lortzen duen taldeak puntu bat eskuratuko du.

ALDAERA: Jokoak aurrera egin ahala, baloi bat baino gehiago sartu, bi edo hiru. Dibertigarriagoa izan daiteke neurri eta pisu desberdineko baloiak sartzea.

